

# AKELARREA: EMANKORTASUNEZKO EUSKAL ERRITOEEN AZTARNA

---

## 1.- Sarrera

Artikulu honen helburua eta jatorria oso loturik daude. Hauxe, galdera batzuen ondorioa. Jatorria oso urrun duen ihardunaldia zergatik eta nola mantendu da mende asko igaro ondoren? Mendebaldeko aro ezberdinak pasa arren jarraitu duen fenomeno honen arrazoi ezkutua eta oso sakona argitzeko edo hausnartzeko asmoaren semea edo fruitua dugu artikulu hau.

Magiaren inguruan sortzen den munduan aurkitu beharko genuke Akelarrearen sorruntzaren azkeneko arrazoa. Mundu honen jaiotza oso zaharra dela esatea ez da aurkikuntza nabarmena. Magiaren mundua animismoarekin bat egiten duen sistema baten partaidea da.

Baina, akelarrea, gizarte arkaiko baten asmakizuna izan arren, bere jaiotzaren azkeneko zentzua eta arrazoa, edonoizko gizonen beharra baten asetzeari dagokio. Alegia, eguneroko erralitatea jasateko, beste errealtatea baten beharra da. Azkenik aipaturiko errealtate hori, gizarteak debekatzen dituzten gizon bakoitzaren beharrak errealizatzeko sentimenduen edo inkonzientearen planoan sortutako inpresioak (nahiz eta ingurunean gertatutako gertakari iruditu) dira. Behar pertsonal horiek, arau gabeko gizarte edo komunitate baten nahian laburtu daitezke. Nahi hau, gizatasuna gainditzeko irrikitasuna da ere bai. Kristau erlijioak, arrazionalismoz betetako erlijioa delarik, Naturaren eraginatik kanpora sortutako nozioak erabiliko dituen lehenengo erlijioa dugu. Deabrua Naturaren inguruan sortu ziren sinismenak ezeztatzeko erabiliko du. Afirmazio hau zehatzago finkatzeko, kristau aurreko (eta sarritan erromatarren munduaren aurreko adierazpenak) sinismenen aztarnak desagiteko erabilitako irudia delakoan nago.

## 2.- Akelarrea: Magia eta Animismoaren kontzepzioan ihardunaldi konkretu bat

Animismoak azaltzen duen munduko ikuspegiak Aurrehistoriako gizarte baten asmakizuna izan behar du. Gizonak aldatu gabeko natur ingurunea gizakiaren pentsamoldearen gan jorratu dezakeen munduaren ikuspegia dugu.

Ezer gutxi aztertu ondoren loratuko pentsamolde arkaiko zoragarri honek Natura osoa dibinitate liluragarri bat bezala irudikatzen duen mundu ikuspegia eskuratzen digu. Lehenengo gizona haiantzat, euren begibistan aurkitzen zen gutzia xarmaz eta misterioz beterik zegoen, edonon joan arren dena berria suertatzen zelako. Abereak, landareak,

mendiak, zerua etab., sakratua ziren. Eta noski, gizona ere Naturaren partaidea izanez gero, dibinitatearen zati bat zen. Horregatik, Naturaren legeak bete behar zituen, eta beraz inguruneko prozedurak ongi mantentzeko lanetan iharduten zuen. Natura oso indar baten eraginaren menpe zegoen. Euskal Herriko mitologian indar horri Adur deritzaio. Adur honek Natura guztia mugitzen zuen. Hau dela eta, Naturaren Arima honen kontrola eskutan izaten zuenak, Ingurunea menperatu zezakeen, eta beraz askatasun osoa zeukan. Naturaren arlo bakoitza numen batek antolatu arren, mundu guztia indar bakar batek mantentzen zuelako dibinitate horien ekintzak aldatzeko aukera dago. Beraz, Adurren boterea bereganatzen zuena, jainko bat bezala zen, indar hori erabiltzerakoan magia egiten zuelarik.



NIKOLAS

Gainera mundua antolatzen zuten numenek osatzen zuten "gizartea" gizonak bere kolektibitatea sortzeko eredu bezala hartu zuten. Hau dela eta, azken finean, gizona ezik gizartea ere Naturaren egituren barne zegoen: eguneroko bizitzan egiten zen edozein lan edo ekintza, numenek Natura antolatzeko egiten zuten ekintza espezifiko baten kopia huts bat zelarik. Animismoari buruz gehiago jakiteko, gomendatzen dizuet, "Lezo" aldizkariko 6. alean argitaratu zen nire beste artikulu bat: "El significado de Olentzero: fiesta del solsticio de invierno".

Magiak erabiltzen zituen teknikak jainkoen ekintzen berdinak zirelako, gizonak Naturaren egitura kontrola zezakeen. Beraz Magiaren bidez, gizonak Natura bere kasa aldatzea bere eskutan zeukan. Denborarekin, animismoa desagertzen denean, oraindik aintzinako teknika berdinak erabiliko dira, baina eguneroko ekintzetatik ezberdinak izango dira zeren gizartea aldatzen bait doa.

Denboraren poderioz, eguneroko ekintza gehienek arruntak bilakatzen direnean, jatorrizko zentzu sakratua galtzen dute. Dena dela, ekintza horiek magiaren teknika gisa, jarraitzen badute, oraindik sinisgarriak suertatzen dira. Teknika zahar horien ondorioan sinisten da, ez ordea jatorrizko zentzuan. Errealitate hau, magiaren sinismena, erlijioa edo sistema baten laguntzarik gabe, gizonaren historia osoan mantendu da. Nekazal Iraultza

ondorengo gizarteetan, eta Abeltzaingoaren inguruan bizi ziren kolektibitateek, animismoaren funtsezko printzipioak mantenduko dituzte. Natura, gizartearen eredia delarik, urteko Zikloa ondo joateko Naturari lagundu behar zaio. Eginbehar honetan erritoen papera ezinbestekoa da, zeren magia dela medio, Naturaren Arima kontrolatzen duten jainkoekin komunikatzen bait dira. Gizartearen beharrak bete ditzaten.

## **Akelarrea, Sorgiña eta Deabrua**

Sorgiña eta deabrua, akelarrearen ihardunaldiarekin loturik dauden irudiak ditugu.

Sorgiña, emakumea eta magiarekin erabat elkarturik dagoen pertsonaia dela azaltzea ez da irakurleko gehientzat gauza berria esatea izango, bai ordea, Sorgiña, magiaren bidez bere borondatea lortzen duen emakumea dugula azaltzea. Kontzeptzio hau animismoaren ondorio zuzen bat da. Sorgiñak, akelarrearen bidez lurraren emankortasuna lortzeko asmoa zeukaten. Lurraren emankortasunak Moderno Aroraino, izugarritzko garrantzia izan du gure kontinente zaharraren edonongo herritan.

Gizarte haiek, aurrera jarraitzeko, lurraren emankortasunaren beharra zeukaten. Horregatik garai haietan gizartea, Naturaren menpe zegoen. Hau dela eta, ez da harritzekoa akelarrea emankortasunezko errito magiko gisa oraindik mantentzea Erdi Aro guztian zehar.

Bestalde, Erdi Arotik aurrera, Elizak indarra hartzen doan neurrian, munduaren beste kontzeptzio berri bat ezarri nahi du. Kontzeptzio hau gizonak sortutako mundu materiala (erromatar garaiko bizimodua) eta Naturarekin zerikusia duen guztia gaiztoa edo txarra delakoan oinarritzen zen. Hots, Natura dibinitatetik kanpora dagoen mundua da. Elizaren sisteman, Jainkoarengandik kanpora dagoen guztia deabruaren inguruan sortutako munduan sailkatzen da. Akelarrea, Naturaren sakralizazioaren inguruan antolatzen den gizarte baten errito zahar bat zenez, Elizak deabruaren munduan zegoen ihardunaldi bat bezala kontsideratuko zuen.

Erromatar mundua desagertzerakoan Europako hainbat eskualdetan, erromatar aurreko errito eta sismismen ugari mantenduko dira. *Sinismen hauek magia eta errito magiko* batzuek besterik ez dira. Gizarte horiek, nekazaritzan edo abeltzaingoan oinarritzen zirenez, errito magikoak lurraren emankortasuna lortzeko egiten zituzten. Errito horietako bat Akelarrea zen.

Erromatarren eragin txikia izan zuten herriek indar handiagorekin mantenduko zituzten errito horiek. Euskal Herria horietariko adibide garbi bat dugu.

Elizak, bere sistema Europako bakarra izateko, erromatar aurreko errito horiek baztertu eta desegin behar ditu. Errito horiek elizgizonen sortutako ideologiaren oinarriekin kontrajarrita zeuden, munduaren ikuspegi batek asmatutako errito batzuek ziren. Horretarako, deabruaren irudia sortzen edo aldatzen joango ziren. Irudi honen kontzeptzioa, erromatar aurreko sinismenetan oinarritzen zen. Deabruak emankortasunezko jainkoen ezaugarrien antzekoak ditu, zeren Elizak pertsonaia hau finkatzerakona, aipatutako jainko horien ezaugarri asko itsatsi bait zizkion. Esate baterako, Deabruaren bi ezaugarri

garrantzitsuenak, hots harreman sexualaren goratzea, eta Naturak eskaintzen dituen ondasunak mugarik gabe dastatzea, emankortasunezko erritoetan ospatzen eta ekiten ziren bi errealitateak ziren.


Atal hau amaitzeko Naturaren Indarra irudikatzeko gehien erabili den irudia emakumea dela esan behar da. Emakumearen ezaugarriak, Naturaren misterioa, edertasuna, emankortasuna eta indarra errepresentatzeko kultura gehienek erabili duten irudia dugu. Euskal Herrian ere, emakume bat dugu, Mari hain zuzen, jeinu guztien buruzagi bezala. Gainera esan behar da bukatzeko, emakumeak Euskal Herriko gizartean izugarritzko garrantzia izan zuela.



NIKOLAS

#### 4.- Akelarrea: Emankortasunezko Euskal Errittoa

Emakortasunezko erritoen bidez gizon-emakueek Naturaren Zikloak mantentzen laguntzen zuten. Errito zahar horiek sortu zituen gizartea, Naturak eskaintzen zizkion fruituen bidez bizitzen zen. Pentsakera arkaiko horien barrun ez zeuden gaur egun arras eta oñartugabe erabiltzen ditugun zenbait kontzeptu. Ezer aldatutako naturak bururatu arazi diezaizkien ideei xeheak baizik. Jolasen bitartez, hau da dibertsioaren bidez (askatasun uneak), Naturaren mekanismoari laguntzen zioten: Janari eta edari ugari, Ama Naturaren oparotasuna eragiteko: drogari (landare aluzinagarri) esker Naturarekin bat eginik, izaera "sokratua" ezagutzen eta bizitzen zuten; dantza eta hainbat jolas etengabe-ko erritmoan ekinez kontzientzia galdu arte, eta horrela gizatasunaren mugak gaindituz; harreman sexualak direla medio, Naturaren emankortasuna indartzen dute.



AKELARREA: Euskal emankortasunezko erritoen aztarna.

NIKOLAS

Esan behar da naturaren Zikloaren errepresentazio asko gizakiaren gizartearen antolamenduan oinarritzen direla (nahiz eta, artikulu honen beste atalean aipatu gizarte hauetako pertsonak aurkako pentsakera daukagutela). Hiritik kanpora bizi ziren pertsonak, Natura zeukaten abiapuntu eta helburu bakarra, euren pentsatzeko era; Naturan aurkitzen zituzten gauzetan bakarrik finkatzen zuten. Horregatik euren ingurune-ko elementoen (aberea, landarea eta atmosferiko gertakariak) ezaugarriak euren munduaren osagarri bakarrak ziren. Beraz ez zegoen pentsamolde abstraktorik. Gizonaren bizitzaren hainbat ekintza eta gauza. Naturaren gertakariak ulertzeko erabiltzen zituzten ez bait zeukaten beste erreferentziarik.

## 5. Akelarrearen jarraipenaren arrazoi izkutuak

### 5.1. Akelarrea: Artea eta Aisiaren Aintzindaria

Akelarrea luzaroan jarraitu duen ihardunaldi bat izan da. Magia, jatorria oso zaharra izan arren, oraindik XX. mendearen bukaeran gure artean aurki dezakegu. Zergatik, akelarrea, eta magia, gizonaren pentsamoldeak zeharo aldatzen diren bitartean, mantendu dira? Nahiz eta, logika eta arrazonamenduaren bidez, gizonak pentsamoldetik baztertze-ko ahalegiñak egin, sentimenduak oraindik edonoz agertzen dira, logika eta arrazonamendua gaindituz.

Akelarreak, nahi eta behar horiek askatzeko uneak eskaintzen zituen. Akelarrea, magia eta dibertsioa batutzen zituen ihardunaldia genuen. Ekitaldi mota honi errito izenarekin ezagutzen dugu.

Gizonak bizitzen jarraitzeko, sistema bat behar du. Hots bere kezkek, nahiak eta beharrak asetzen dituen mundu bat sortu behar du. XVIII. menderarte sistema, erlijioa edo

mitologian oinarrituak zeuden. Erlijioa, edo mitologia, sistemaren antolamenduak zeukan egiturari zentzia ematen zion errepresentazioa zen.

Mundua ulertzeko erabiltzen diren errepresentazioek sistema-mundu konkretu baten errealitatea osatzen dute. Beraz, errealitatea ingurunea ulertzeko eta bizitzari zentzia emateko gizonak sortu duten errepresentazioa da. Errerepresentazio hori imajinez eta sinboloz osaturik dago. Sinbolo hori zubi bat da, lau sentiduak, pentsalmodea eta sentimenduen arteko lotura sortu behar duena. Gainera zubi honek egokia izateko, gizonaren sentimenduan eragin pozgarria izan behar du. Sentimendu arloan eragina ona baldin badauka sistema honek eskaintzen duen errealitatea, erreala bezala kontsideratuko da, eta beraz gizarte bat antolatzeke eta mantentzeke balio du.

Sistema baten errerepresentazioak sortu duen "errealitatea" egitzak frogatzeko, erritoak erabiltzen dira, gizonen sentimenduen, lau sentiduen eta pentsamolde arteko zubia sortzeko. Gizonak sentimenduen eta lau sentiduen bidez pentsamoldea bizitzerakoan, sistema horrek sortu duen errealitatean arrazago sinisten du.

Jaia, festa, erritoaren osagarri garrantzitsu bat zen. Jaiak sortzen duen askatasun sentimendua edo poztasun handia, sistemaren errealitatea frogatzeko ere erabiltzen zen. Beraz, erritoetan, jaia, antzerkia eta narrazioa nahasten ziren. Laburpen gisa esan daiteke, lau sentiduekin sentitzen denean errealitatea errealagoa bihurtzen dela. Gainera honi batzen badiogu drogek, janariak eta edari ugariak erakartzen duten egoera pozgarria, erritua, edozein ideologiaren "errealitatea" frogatzeko balio zuen.

Erdi Arotik aurrera, Eliza nagusitzen hasten denean eta beraz sistema berri baten asmoa daukalako, erromatar garai aurreko europar sistemen azkeneko aztarnak desagertzeko premian aurkitzen da. Asmo hau betetzeko, bi ataleko prozedura erabiltzen du. Bere sistemaren errerepresentazioak ezartzeko, Kristo aurreko erlijio eta mitologiaren sinbolo berdinak erabiltzen dituzte. Esan behar da Trinitatearen bigarren pertsona Errito Misterikoen egitura berdintsua daukala, eta Hirugarren Pertsona, Eliza sakralizatzeko sortu zen sinboloa dela (Eliza sortu zen apostoluek Izpiritu Santua sartu zitzaizenean. Pertsona bakoitza bataiatzen denean, Izpiritu Saindua sartzen zaio). Sinbolo guzti hauek, Kristoren jarraitzaileak beste gizartearekiko sinbolo adierazgarri eta bereizgarri garbi bat izateko, sortu ziren.

Bestalde, Kristo aurreko erritoekin amaitzeko, arrazonamenduaren labaina erabiliko dute. Horretarako, pentsamoldea, lau sentiduen eta sentimenduen arteko zubia moztzen dute. Erritoaren muntaia salatzen dute. Afrimazio hau frogatzeko "antzerkiaren" nozioa erabiltzen dute. Antzerkian nozioa zera da, errito baten muntaia salatzea, eta beraz eusten duen errealitatea gezurtzat azaltzea. Antzerkia Erritoaren semea dugu, eta XX. mende honetan oraindik egin behar izugarria betetzen du: gizonak, arrazonamenduak sortu duen gizarte hutsetik alde egiteko uneak eskaintzen ditu. Gaur egun Artea eta Aisiak, eguneroko bizitzak asetzen ez dituen behar eta nahi batzuek betetzen dituzte. Behar horiek arrazonamendua eta logikak sortzen dituzten mundu ezberdinak dira. Arrazonamendua nagusitu zenetik, behar horiek baztertuak eta izkutatuak izan dira (zeren gizonaren ezjakintasunean oinarritzen ziren gizartearen zutabeak ziren). XVII. mendetik aurrera, sentimendu horiek asetzeko, Arteak eta Aisia izandu dira edonoizko gizonak dituen behar

horiek asetzeko bide bakarra. Baina lehen, Kristo aurreko gizarteetan (mundu klasikoa ezik) sentimenduaren inguruan sortutako mundua zen nagusia. Akelarrea, sentimenduaren nagusitasunean oinarritzen zen. Logika eta arrazonamendua bilakatu gabe zeuden gizarte horietan elementu garrantzitsuena erritoak ziren. Azken finean, akelarrearen erakertasuna hortan datza: arrazonamenduak galerazi dituen sentimenduak goratzen duen sistema baten zaita zen. Esan behar da, gizonen fantasiak eta gizarteak sortutako errealitatearen arteko zubia, beti oso garrantzitsua dela. Lehen erritoen bidez lortzen zena, gaur Artea eta Aisiaren bidez egiten da.

## **5.2. Akelarrea: Elizaren sistemaren aurkako askatasun erreinbindikazioa**

Kristoren inguruan sortutako sistemaren aurka joateko modu bat zen ihardunaldi hau. Akelarre ihardunaldian partaide ziren pertsonentzat ekitaldi hauek, eguneroko bizitzatik urruntzeko askatasun uneak eskaintzen zituen.

Euskal Herriko gizonak, Erdi Aroan Europa osoan zabaltzen ari zen sisteman emakumeak baino sartuagoak zeuden, zeren merkataritzari esker, Estatu ezberdineko pertsonekin harremanak zituzten. Baina emakumeek, Euskal Herrian jarraitzen zuten, ohitura zaharrak eusten eta mantentzen. Horregatik Mendebaldeko gizartean sortzen ari ziren aldaketa nagusien berririk ez zeukaten.

Euskal Herriko nekazal emakume askorentzat, Kristoren inguruan sortutako sistemak eskaintzen zuen bizimodua oso urrun ikusten zuten errealitate hutsa bat zen. Oraindik garai zaharreko pentsamolde ugari mantendu zuten lekuetan (batez ere nekazaritzatik bizitzen ziren herrietan), akelarreak ospatzerakoan Kristo aurreko bizimodura itzultzeko aukera ematen zion, eta bestalde Elizak inposatu zuen bizimodutik apartatzeko aukera ezin hobea. Azken finean, kristau sistemaren aurkako protesta batean bilakatu zen.

## **6.- Konklusioa**

Amaitzeko esan daiteke Erdi Aroan, Euskal Herria merkataritzan murgildurik zegoen aberri batean, akelarrea mantentzea oinarritzen zen:

- 1) Merkataritzatik aparte gelditu diren eskualdeak, oraindik Kristo aurreko ohituren mantentzaileak zirenez, Akelarrea, sistema zahar honen aztarna adierazgarri bihurtuko zen. Esan behar da, Emakumeak ohitura zaharraren mantentzaile zehurrak izango direla, ez bakarrik nekazaritza eskualdeetan, baizik eta merkataritza inguruetan bizi diren herri batzuetan ere. Ez da harritzekoa, akelarrearen balio magikoa Moderno Aroraino mantentzea, kontutan hartzen badugu gaurdaino iritsi zaigula euskal mitologiaren numen askoren ezagupena. Akelarrea, Lurren emakortasuna lortzeko errito magiko soil gisa mantentzea ez zen beraz zaila.
- 2) Akelarrea, sistema batetik kanpora sentitzen den kolektiboarentzat, errito honek, jai bat edo festa bat bezala kontsideraturik, izugarriko balioa izan zezakeen. Mundu batetik beste mundu mitiko batera itzultzeko aukera ematen zion, eguneroko arazotak, kezak eta nahigabeak ahaztutzeko.

- 3) Jai hauen barne erritoak dakarren antzerkiak ere izugarritzko balioa izango luke, garai batetan "dibinitatearen posesioa" izango zena garai hortan ebasioa lortzeko teknika izango zen. Gaurko artistek eta idazleek nabari esaten dute, pertsonaia bat sortzerakoan edo errepresentatzerakoan bere pertsonaren orekarako izugarritzko eragina ona duela.
- 4) Akelarrea, sistema kritikatzeko modu aproposa zen. Ihardunaldi honek suposatzen zuen mundu ikuspegia Kristoren inguruan sortu zen sistemaren kontrajarria zen Arrazonamenduan oinarritzen zen sistemen kontrajarria zela aski garbi dago. Beraz ihardunaldi hori egiterakoan, Kristoren sistemaren aurka zoaz, nahiz eta logikaren bidez Elizak jakin konklusio honen jatorria aurreiritzi ezlogikoan edo arrazondugabeko afirmazioan oinarritzen zela. Horregatik, Moderno Aroan suntsitu zen akelarrea, zeren ihardunaldi hau ospatzeak suposatzen zuen Elizaren sistemaren errealitatean ez sinistea. Eta horregatik jarrera honek Jainkoaren kontra zoazela, eta deabruaren alde zaudela suposatzen zuen Kristoren jarraitzaileentzat.

Azkenik, Akelarrearen balio izkutuenak, sektaren errealitatera bideratzen gaitu. Gizarte batek suposatzen duen hartuemanetatik kanpora sentitzen diren pertsonak, [eta jakinik giza antolaketaren ezinbestekoa diren egitura dela (nahiz eta XIX. mendeko mugimendu sozio-politikoak ezeztatu)], sekta hauen biktimak dira, zeren arrazonamendugabeko edo gutxiko pertsonetan baliatzen dira, haien nahi eta behar utopikoak lortzera lagunduko diotela garantizatzen bait dute.

**NIKOLAS ALBIZU**

